“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordean Donostiako hipodromoa ustiatzeko esleipenaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hipodromoa ustiatzen duen enpresak (Hipodromos y Apuestas Híppicas de Euskadi, S.A.) emakida utzi egiten zuela adierazi zion Udalari 2018. urtearen hasieran, arazo ekonomiko batzuk zirela eta. Urte hartako martxoan, Udalak iragarri zuen beste lehiaketa bat aterako zuela, hipodromoa

II.1.2. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la adjudicación para la explotación del Hipódromo de San Sebastián.

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Servicios Generales, sobre la adjudicación para la explotación del Hipódromo de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

La empresa que explota el hipódromo, Hipódromos y Apuestas Híppicas de Euskadi S.A., comunicó al Ayuntamiento a principios de 2018 que renunciaba a la concesión por problemas de índole económica. En marzo de ese mismo año, el consistorio ya anunció que sacaría un nuevo concurso para llevar las riendas del recinto con

eramateko, 2019ko denboraldia egin ahal izateko.

Hala ere, lehengo emakidadunak —artean ere beste lehiaketaren deialdirik egin gabe baitzen— 2018rako programaturako zaldidenboraldia antolatu eta kudeatzea adostea eskaini zion Udalari, eta baita 2019ko lasterketa-denboraldia programatzeko eta antolatzeko egin beharreko izapideak eta kudeaketak egiten hasia ere.

Indefinizio egoera hori ez da aldatu oraindik, eta, ondorioz, ez da inbertsiorik egin instalazioetan, hondatu egin da belar eta hareazko pista, eta nabarmen galdu dira hirian jarduera historiko bat egiteko baldintzak, inguru honetan zale asko dituen jarduera.

Hipodromoaren ustiapena esleitzea lehiaketara ateratzeko konpromisoa hartu zuen Donostiako Udalak 2018ko urrian. Denbora hori pasatu ondoren, Zerbitzu Orokorren Batzorde horretan iragarri zuten hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean iragarriko zuela Gobernuak lehiaketa horretarako deialdia, bi enpresaren interesa, behintzat, bazela eta enpresa horietako batek belar-pista kendu eta hondarrezko pista jartzeko pentsamendua ere bazerabilela.

Hala, azpiegitura historiko horrek gure hirian duen garrantzia, herritarren zaletasuna eta, besteak beste, Urrezko Kopa hartzen duen udako denboraldiaren eta lasterketa belarrezko pistan egitearen garrantzia direla eta, hauxe da PP udal taldeak dakarren

la vista puesta en la temporada de 2019.

Sin embargo, dicha concesionaria, sin convocatoria de concurso hasta la fecha, mostró su voluntad de acordar con el Ayuntamiento la organización y gestión de la temporada de caballos ya programada para 2018 e incluso iniciar la realización de los trámites y gestiones necesarias y oportunas para la programación y organización de la temporada de carreras de 2019.

Dicha situación de indefinición se ha mantenido hasta la fecha, con la consiguiente falta de inversión en las instalaciones, deteriorando el estado de la pista de hierba y arena y perjudicando notablemente las condiciones sobre las que desarrollar una actividad histórica en la ciudad y que cuenta con numerosos aficionados en nuestro entorno.

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se comprometió a publicar un concurso para adjudicar la explotación del hipódromo en el mes de octubre de 2018. Transcurrido este tiempo, en la citada Comisión de Servicios Generales se anunció que el Gobierno anunciaría en la próxima Junta de Gobierno Local la convocatoria de dicho concurso, para la cual se conocía el interés de, al menos, dos empresas, una de las cuales contemplaba la posibilidad de convertir la actual pista de hierba por una de arena.

Dada la importancia de esta infraestructura histórica en nuestra ciudad, la afición que existe entre la ciudadanía y la relevancia de la temporada de verano que alberga entre otros premios, la Copa de Oro y que se desarrolla en una superficie de hierba, el Grupo Popular presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hilabete baino lehen emateko hipodromoa ustiatzeko lehiaketa, zaldi-karreraren udako denboraldia antolatu eta kudeatu ahal izateko.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio baldintza-agirian bermatzeko hipodromoak aurrera ere belar-pista izatea, gure hipodromoaren nortasunaren eta historiaren parte baita pista klase hori, eta han egin baitira saririk gehienak, Urrezko Kopa, besteak beste.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio babesleak bilatzeko gure lurraldea, turfa sustatu eta bultzatzeko.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio baldintza-orrian jartzeko udako denboraldiko zaldi-lasterketen lautatik hiru, gutxienez, arratsaldeetan eta igandeetan izango direla.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an.

Borja Corominas Fisas
PP udal taldearen bozeramailea”

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a adjudicar el concurso de explotación del Hipódromo en el plazo máximo de un mes para poder organizar y gestionar la temporada de verano de cerrerías de caballos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a garantizar en el pliego de condiciones la pista de hierba, elemento que forma parte de la personalidad e historia de nuestro Hipódromo y sobre el cual se desarrollan la mayoría de premios, entre los cuales figura la Copa de Oro.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a buscar patrocinadores en el territorio para promover e impulsar el turf.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a fijar, en el pliego de condiciones al menos un 75% de las jornadas de carreras de caballos de la Temporada de verano en horarios vespertinos y en domingo.

En San Sebastián, a 20 de febrero de 2020

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Partido Popular”

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Marta Huarte Paño andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Borja Corominas Fisas, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D.^a Marta Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.

ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5)
PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

VOTOS A FAVOR: 3 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ-PNV, (5)
PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

II.1.3. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, 2019-2020 udazken-neguko brea botatze kanpainari buruzkoa.

“Talde Popularraren bozeramaile Baroja Corominas Fisasek, indarrean den Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta 2019-2020 udazken-neguko brea botatze kanpainaren gaineko KONTROL MOZIO hau egin nahi dio alkateari, Eneko Goia Lasori, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko urriaren 14an dokumentu bat aurkeztu zien udal gobernuak oposizioko taldeei, 2019-2020 udazken-neguko brea botatze kanpainako konpromisoak zekartzana. Dokumentu hori Dbus-eko gidariek Tolosa hiribidea eta hiriko beste puntu batzuk asfaltatzeko esijentziari erantzuteko egin zen.

Hurrengo egunean, 2019ko urriaren 15ean, Diario Vascok albiste hau jaso zekarren: “Lehiaketara aterata da 80 kale asfaltatzeko lana, 2 milioi euroan egiteko”.

Artikuluaren gorputzak honela zioen: “Bi milioi euro gastatuko ditu Udalak udazken-negu honetan brea botatzen, azkeneko hamarkada hauetan denetan izan den diru kopururik handienetako bat”.

II.1.3. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la campaña de asfaltado otoño-invierno 2019-2020.

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, la siguiente Moción al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, sobre la campaña de asfaltado otoño-invierno 2019-2020.

JUSTIFICACIÓN

El 14 de Octubre del 2019 el Gobierno Municipal presentó un documento a los grupos de la oposición con los compromisos de asfaltado de la campaña otoño-invierno 2019-2020. Este documento se elaboró en respuesta a la exigencia de los conductores de Dbus de asfaltar Avenida Tolosa y otros puntos de la ciudad.

Al día siguiente, 15 de Octubre del 2019, el Diario Vasco recogía la siguiente noticia: “Sale a concurso el asfaltado de 80 calles por 2 millones de euros”.

El cuerpo del artículo decía lo siguiente: “Dos millones de euros se gastará este otoño-invierno el Ayuntamiento en la campaña de asfaltado, una de las cifras más altas de las últimas décadas”

Negua pasatzeko 20 egun falta direla, gobernu talde hau ez da gauza izan Tolosa hiribidean presako prozeduraren bidez inbertitutakoa baino euro bat gehiago ere erabiltzeko. Beste 79 promesak, berriz ere, ahanzturan galdu dira.

Gune Publikoen Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran, Gune Publikoetako eta Hiri Zerbitzuetako zinegotzi eskuorde Marisol Garmendiak aitortu zuen 1. eta 2. loteak lehiaketara aterata daudela, baina esleitu gabe daudela oraindik.

Gobernu talde hau ez da gai herritarrekin hartutako konpromisoak betetzeko. Hori dela eta, hauxe da gure

A 20 días del final del invierno este equipo de gobierno ha sido incapaz de gastar un solo euro más allá de lo invertido por procedimiento de urgencia en el asfaltado de la Avenida de Tolosa. Las otras 79 promesas se han diluido, una vez más, en el olvido.

En la pasada Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, la concejal delegada de Espacios Públicos y Servicios Urbanos, Marisol Garmendia, reconoció que aunque los lotes 1 y 2 están licitados, siguen sin adjudicarse.

Este equipo de gobierno se muestra incapaz de cumplir los compromisos adquiridos con la ciudadanía y es por eso por lo que presentamos esta

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kronograma zehatz bat egiteko, datozen bi hilabeteetan, 2020ko martxoan eta apirilean, bideetako breia hobetzeko egin beharreko lanena.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio asfaltatze beharren plan eta jarduketa kronograma batzuk egiteko, bi hilean behin, gure hiriko bideen zorua hobetzeko.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bi hilean behin agertzeko asfaltatze arloan egindako inbertsioen eta hurrengo bi hilabeteetan egingo dituenen berri emateko.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un cronograma detallado de actuaciones de mejora del asfaltado para los próximos dos meses, Marzo y Abril del 2020.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar planes bimensuales de necesidades de asfaltado y cronogramas de actuaciones para mejorar el asfaltado y bacheado en las calles de nuestra ciudad.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a comparecer cada dos meses para dar cuenta de las inversiones realizadas en materia de asfaltado y comunicar las que se van a realizar durante el próximo periodo de dos meses.

San San Sebastián, a 20 de febrero de 2020

Borja Corominas Fisas
PP udal taldearen bozeramailea”

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoa jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.^a Haizea Garay Gallastegui, D.^a Marisol Garmendia Beloqui y D.^a Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

II.1.4. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Etxebizitzaren Behatokia sortzeko erabakia bete ez izana dela eta.

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten diot, azterkizun, Udaltzari, Etxebizitzaren Behatokia sortzeko erabakia bete ez izana dela eta. Joan den 2020ko otsailaren 17an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako mozio baten ondorio da kontrol mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

II.1.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la falta de cumplimiento del acuerdo para la creación del Observatorio de la Vivienda.

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la falta de cumplimiento del acuerdo para la creación del Observatorio de la Vivienda. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 17 de febrero de 2020.

JUSTIFICACIÓN

Donostiako Udalbatzak, 2018an, Ebazpen Proposamen bat onartu zuen, EH Bilduk eskatuta. Hirugarren puntuan honela zioen: "Etxebizitzaren egoerari buruzko jarraipen zuzena egin ahal izateko, bai prezioaren bilakaerari dagokionez (alokairua eta/edo erosketa), bai eskaintzaren aldetik, alkateari eta Gobernu taldeari hertsatuki eskatzea Etxebizitza Behatokia sortzeko, gertatzen diren aldaketak eta udalak merkatuan ezartzen dituen ekintzek merkatuan duten eragina monitorizatzeko".

Aho batez onartuta geratu zen puntua. Hau da, udaleko talde politiko guztiek, salbuespenik gabe, bozkatu zuten Etxebizitzaren Behatokia sortzeko beharraren alde. Egoera hori ez da harritzekoa, hain zuzen ere, etxebizitzaren prezioa arazo nagusi duen hiri batean.

Denbora luzea igaro den arren, behatoki hori oraindik ez dute sortu.

Udal Gobernuari horri buruzko interpelazioa egin ondoren, Hirigintza Iraunkorreko eta Etxebizitzako ordezkariak etxebizitzaren arloko jarduketei buruzko aipamen bat egin zuen, eta ez zuen inolako azalpenik eman udal Gobernuak, orain arte, Etxebizitzaren Udal Behatokia ez sortzeko izan dituen arrazoiei buruz, osoko bilkuran aho batez "onartu" arren.

Jokabide bitxia da hori, izan ere, udal Gobernuak hainbat aldiz adierazi du Eusko Jaurlaritzak ez dituela ematen Donostiako etxebizitzaren portaerari buruzko datuak, auzoka bereizita, Datuak Babesteko Legearen babestzat hartuta. Eusko Jaurlaritzak emandako erantzunaren edukiarekin inondik inora bat ez gatozen

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia, en 2018, aprobó una Propuesta de Resolución, a instancia de EH BILDU, en cuyo punto tercero se decía: "Al objeto de hacer un seguimiento directo del comportamiento de la vivienda, tanto en lo referente a la evolución del precio en sus distintas modalidades (alquiler y/o compra) como a la oferta, se insta al Alcalde y al equipo de gobierno a que cree el Observatorio de la Vivienda a fin de monitorizar las variaciones que se vayan produciendo y las repercusiones que tienen sobre el mercado las distintas acciones que se vayan implementando por parte del Ayuntamiento".

Dicho punto resultó aprobado por unanimidad. Es decir, todos los grupos políticos del Ayuntamiento, sin excepción, votaron a favor de la necesidad de crear un Observatorio de la Vivienda. Dicha circunstancia no resulta extraña en una ciudad cuyo problema fundamental es precisamente el precio de la vivienda.

A pesar del tiempo transcurrido lo cierto es que el citado observatorio sigue sin crearse.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, la delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda se limitó a hacer una referencia sobre actuaciones en materia de vivienda, sin llegar a dar explicación alguna sobre los motivos por los que el Gobierno Municipal no ha creado, hasta la fecha, el Observatorio Municipal de la Vivienda "acordado" por unanimidad en sesión plenaria.

Dicho proceder resulta extraño, habida cuenta de que el Gobierno Municipal ha expresado en distintas ocasiones que el Gobierno Vasco no facilita los datos sobre el comportamiento de la vivienda en Donostia, de forma desagregada por barrios, amparándose para ello en la Ley de Protección de Datos. Aunque discrepamos absolutamente con el contenido de la respuesta

arren, egia da horrek are gehiago indartzen duela Etxebizitzaren Udal Behatokia sortzeko beharra.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal taldeak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, Udalbatzak hartutako erabakia betetzeko, Etxebizitzaren Udal Behatokia ezarri eta horretarako beharrezkoak diren urrats eta erabaki guztiak har ditzala.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, informazio mekanismoak indartze aldera, behar diren jarraibideak eman ditzala Udalaren web orrian etxebizitzak hirian duen portaerari buruzko informazioa jasotzeko, auzoka berezita.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an

Sinatua: Rikardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

dada por el Gobierno Vasco, es cierto que este hecho refuerza, más todavía si cabe, la necesidad de creación del Observatorio Municipal de la Vivienda.

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en cumplimiento del acuerdo plenario adoptado, implemente el Observatorio Municipal de Vivienda, adoptando para ello todos los pasos y acuerdos que resulten precisos.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en aras a reforzar los mecanismos de información, dé las instrucciones oportunas para que se cuelgue en la página web municipal la información sobre el comportamiento de la vivienda en la ciudad de forma desagregada por barrios.

En Donostia, a 20 de febrero de 2020

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del grupo municipal de EH BILDU”

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.^a Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.^a Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 1 – PP, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 1 – PP, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

AHO BATEZ.

ABSTENTZIOAK: 1 – PP, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADO.

UNANIMIDAD.

ABSTENCIONES: 1 – PP, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

II.1.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, pobrezia energetikoaren bulegoaren iraunkortasuna dela eta.

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko otsailaren 17an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko otsailaren 4an, Donostiako pensionisten kolektiboak honako eskaera

II.1.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a sostenibilidad de la oficina de la pobreza energética.

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno del Ayuntamiento. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas del 17 de febrero de 2020.

JUSTIFICACIÓN

El 4 de febrero de 2019, el colectivo de pensionistas de San Sebastián presentó en el

hau aurkeztu zuen erregistro bidez (199/3192): pobrezia energetikoaren ondorioak gero eta jende gehiagok jasaten duela salatzen dugu eta udal gobernuari eskatzen diogu energiaren bulego bat antolatu dezala, pobrezia energetikoarekin lotuta dauden beharrak detektatzeko eta bideratzeko.

Aurkeztutako dokumentuan, pentsionisten kolektiboak egiten zuen eskaera Espainiako estatuko hainbat hiritan martxan jarri zen ekimenaren antzekoa zen. Esate baterako, 2018ko azaroan Valentziako Udalak ireki zuen horrelako bulego bat, pobrezia energetikoari aurre egin ahal izateko, hiriko % 23ari eragiten zion kaltea baitzen.

Hori dela eta, 2019ko martxoko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen eta Gizarte-ekintzako delegatuak adierazi zuenez, pentsionisten kolektiboak egindako proposamena interesgarria iruditu zitzaion Udal Gobernuari eta hurrengo enplegu sustapeneko programaren bidez forma emateko aukera azertu behar zuten, pertsona bat kontratatuz energiaren faktura bideragarria nola egin azaltzeko hiriko familiei. Dena den, delegatuak ez zuen epe zehatzik aipatu eta martxoan Udalbatzak onartutako kontrol mozio hau aurkeztu genuen:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari idatziz aurkeztu dezala pobrezia energetikoa ekiditeko bulegoari dagokion plana eta zerbitzua noiz irekiko duen zehaztu dezala, Alderdi Ederreko pentsionisten plataformaren eskaerari erantzunez.

Urrian Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Pobrezia eta Desberdintasunen inkestaren emaitzen arabera, 200.000 pertsonak jasango dute pobrezia energetikoaren

registro (n.º de entrada: 199/3192) un escrito en el que denunciaba que cada vez más personas sufren los efectos de la pobreza energética y solicitaba al Gobierno Municipal que creara una oficina que se ocupara de las cuestiones energéticas, con el objetivo de detectar y canalizar las necesidades relacionadas con la pobreza energética.

La demanda del colectivo de pensionistas, recogida en dicho escrito, era similar a la iniciativa puesta en marcha en varias ciudades del Estado español. Por poner un ejemplo, en noviembre de 2018 el Ayuntamiento de Valencia abrió una oficina de este tipo para hacer frente a la pobreza energética, la cual afectaba al 23% de las y los habitantes de la ciudad.

Por ello, presentamos una interpelación en las comisiones de marzo de 2019, y la delegada de Acción Social indicó, en su respuesta, que el Gobierno municipal consideraba interesante la propuesta del colectivo de pensionistas y que debía analizar la posibilidad de darle forma mediante el próximo programa de promoción de empleo, contratando a una persona que explicara a las familias de la ciudad cómo realizar una factura energética viable. No obstante, la delegada no mencionó ningún plazo concreto, por lo que, en el Pleno de marzo, presentamos la siguiente moción de control, que resultó aprobada:

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que presente por escrito el plan sobre la oficina de atención a la pobreza energética, y a que concrete la fecha de apertura del servicio, con el fin de responder a la petición de la Plataforma de los Pensionistas de Alderdi Eder.

Según los resultados de la Encuesta de Pobreza y Desigualdades publicada en octubre por el Gobierno Vasco, 200.000 personas se verán afectadas por la pobreza energética este

ondorioak negu honetan (hotza, berogailua pizteko zailtasunak, argi falta eta abar). Datuen arabera, 2008tik pobrezia energetikoa % 125 hazi da EAEn.

Aldi berean, 2020ko urtarrilaren 30ean Gurutze Gorriak aurkeztutako memorian adierazi du, 2019an, Gipuzkoako 423 familiari lagundu diela energia gastuei aurre egiten (gehienak Donostiakoak).

Azaroko batzordeetan Ingurumeneko delegatua interpelatu genuenean, bulegoa abenduaren 2an irekiko zela eta OMICen jarriko zutela adierazi zuen. Azkenean, atzerapen baten ostean, delegatuak jakinarazi zigun bulegoa 2019ko abenduaren 23an ireki zela.

Pentsionisten plataformarekin berri hau kontrastatu eta gero hurrengo kezka hauek adierazi dizkigute:

- Zerbitzu honek ez du haien eskaera asetzen, ez baititu pobrezia energetikoa ekiditeko laguntzak edo neurriak ematen, zerbitzuaren helburua delako erabiltzaileari faktura merketzeko aholkuak ematea.
- Zerbitzuak ez du etorkizunek, martxora arte irekitzea finkatu delako. Informazio hau guk geuk kontrastatu dugu zerbitzua eskaintzen duen teknikariarekin.
- Ez da zerbitzua promozionatu edo ezagutarazi herritarren artean. Horren seinalea da Udaleko web-gunean pobrezia energetikoaren ataleak ez dela ezta aipamenik egiten¹.

Gauzak horrela, otsaileko Pertsonen

invierno (frío, dificultades para encender la calefacción, falta de luz, etc.). Los datos arrojados por dicha encuesta reflejan que la pobreza energética en la CAV ha crecido un 125 % desde 2008.

Asimismo, la Cruz Roja, en la memoria presentada el 30 de enero de 2020, señala que en el año 2019 ha ayudado a sufragar los gastos energéticos a 423 familias guipuzcoanas, en su mayoría de San Sebastián.

Cuando en las comisiones de noviembre interpelamos al delegado de Medio Ambiente, se nos respondió que la oficina se abriría el 2 de diciembre y que se ubicaría en la OMIC. Finalmente, el delegado nos comunicó que, tras un aplazamiento, la oficina se abrió el 23 de diciembre de 2019.

Hemos contrastado esta noticia con la Plataforma de Pensionistas, y nos ha trasladado las siguientes preocupaciones::

- Este servicio no satisface la demanda de la Plataforma, ya que no ofrece ni ayudas ni medidas para evitar la pobreza energética, puesto que su objetivo es, simplemente, asesorar a las personas usuarias para sepan cómo hacer que su factura sea más barata.
- El servicio no tiene futuro, ya que se ha decidido que permanecerá abierto solo hasta marzo. Esta información ha sido contrastada por nuestro grupo con la persona que presta el servicio.
- El servicio no se ha promocionado ni dado a conocer entre la ciudadanía. Prueba de ello es que en la página web del Ayuntamiento, en el apartado de pobreza energética¹, no se hace mención alguna a él.

Así, en la Comisión de Personas de febrero

Batzordean ingurumeneko delegatua interpelatu dugu gaiaren inguruan. Delegatuak adierazi digu bulegoko teknikariak 35 pertsona artatu dituela zerbitzua ireki zenetik eta, martxotik aurrera, teknikariaren kontratua amaitzen denean, Donostiako KIUBeko bi langileri egokituko zaiela funtzio hau.

KIUBeko teknikariak lanez gainezka daudela jakinda, ez zaigu iruditzen zerbitzua mantentzeko aukerarik egokiena bi pertsona hauen lan karga handitzea.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko web orrialdean, probezia energetikoaz hitz egiteko dagoen atalean, pobrezia energetikoa ekiditeko aholkularitza zerbitzuaren berri eman dezala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2020ko martxoan pobrezia energetikoa ekiditeko aholkularitza zerbitzuaren memoria eta ebaluazioa egin dezala eta lan horiek udal taldeekin parteka dezala.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

presentamos una interpelación al delegado de Medio Ambiente. El delegado nos indicó que la persona encargada de la oficina ha atendido a 35 personas desde la apertura del servicio y que, a partir de marzo, una vez que finalice su contrato, esta función se asignará a dos personas trabajadoras de la OMIC de San Sebastián.

Teniendo en cuenta que el personal técnico de la OMIC está desbordado de trabajo, no creemos que la mejor opción para mantener el servicio sea aumentar la carga de trabajo de estas dos personas.

Por todo lo anteriormente expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que en el apartado dedicado a la prevención de la pobreza energética de la página web del Ayuntamiento se informe sobre el servicio de asesoramiento para evitar la pobreza energética.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, en marzo de 2020, elabore la memoria y la evaluación del servicio de asesoramiento para la prevención de la pobreza energética y a que comparta estos documentos con los grupos municipales.

San Sebastián, 20 de febrero de 2020

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH BILDU”

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.^a Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

AHO BATEZ.

**ABSTENTZIOAK: 1 – EAJ-PNV, PLENO
ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

UNANIMIDAD.

**ABSTENCIONES: 1 – EAJ-PNV, POR
HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

II.1.6. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Anoeta inguruan motoak aparkatzeko zen tokia erabiltzeari buruzkoa.

“Talde Popularraren bozeramaile Baroja Corominas Fisasek, indarrean den Udaltzataren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Anoeta inguruan motoak aparkatzeko zen tokia erabiltzeko modua izatearen gaineko KONTROL MOZIO hau dakar, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Behin-behingo, behin betiko. Aparteko neurria izan behar zuena —Anoeta estadioko obrak bukatu arte—, inguru hartan motoak aparkatzeko zen tokia behin betiko ixtea izango da. Futbol-zelaia birmoldatzeko lanak hasi aurretik motoak Atano III.a frontoiaren, Gasca kiroldegia eta Anoetako estadioaren artean eraten duten trianguluan zen lur gaineko aparkalekuan aparkatzen zituzten zaleek beste aukera batzuen bila jarraitu beharko dute hemendik aurrera ere futbol-partidetan motoa aparkatu ahal izateko,

II.1.6. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la utilización de la zona de aparcamiento para motos en Anoeta.

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación plasmada en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la utilización de la zona de aparcamiento para motos en Anoeta.

JUSTIFICACIÓN

De provisional, a definitivo. Lo que iba a ser una medida excepcional hasta que finalizaran las obras del estadio de Anoeta, se va a convertir en cierre definitivo del aparcamiento de motos que existía en esa zona. Los aficionados que antes del inicio de los trabajos de remodelación del campo de fútbol estacionaban sus motos en el aparcamiento en superficie que queda entre el triángulo que forman el frontón Atano III, el polideportivo Gasca y el estadio de Anoeta, tendrán que seguir buscando otras opciones para estacionar su motocicleta durante los

handik 1,4 kilometrora den Illunbeko aparkalekuan uztea beste alternatibarik gabe.

Izan ere, Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuak erabaki du Atano III.aren inguruko lur gaineko aparkalekuaren behin-behineko egoera behin betikoa izatea. Arrazoi nagusia: oinezkoen segurtasuna bermatzea. Lehen esan dugun batzordearen bilera horretan adierazi zen bezala, azkeneko asteotan egindako azterketek atera duten ondorioa da onena partida den egunetan motoak aparkaleku horretan ez uztea dela, batez ere estadioa hustekoan oinezkoekin izan daitezkeen gorabehera txarrik ez izateko. Mugikortasunak ikusi du motoak berriz ere aparkaleku horretara itzultzea “ez dela gomendagarria”, zeren eta estadiotik atera eta autobusera eta Topoaren geltokira doazen oinezkoen irteerak talka egiten duela dozenaka moto zalerekin, Bakearen Usoaren biribilgune aldera ateratzeko beste biderik ez dutelako moto zaleek. Udalak, ordea, erabaki du Realeko langileentzat izatea aparkalekuko hori partiduak izaten diren egunetan. Erabaki oso harrigarria da hori, Anoetako instalazioetako obrek lur azpian aparkaleku bat izatea aurreikusten baitute, langileen ibilgailuak kabitzeko adina toki izan behar lukeen aparkalekua.

Nolanahi ere, harrigarria da partida egunetan Anoetako zelaitik ordenan ateratzeko modua bideratzeko baliabide guztiak jarri beharrean —moto zaleei eta oinezkoei irteera erregulatu bat emanda, mugikortasuneko agenteen bidez edo ibilbide batzuk markatuta, adibidez —, erabakia motoak aparkatzeko oso beharrezkoa den toki bat ixtea izatea, Illunbekoa beste alternatibarik eskaini gabe; eta oraindik eta gehiago Amara guztian aparkatzeko zer arazo dagoen ikusita, batez ere Errealaren partidak izaten direnean.

partidos de fútbol, sin más alternativa que la del aparcamiento de Illunbe, a 1,4 kilómetros de distancia.

El departamento de Movilidad del Ayuntamiento donostiarra ha determinado que la situación de provisionalidad del aparcamiento en superficie próximo al Atano III sea definitiva. La razón principal: garantizar la seguridad de los peatones. Tal y como se expresó en la citada Comisión, los estudios realizados en las últimas semanas han concluido que es recomendable que las motos no estacionen en ese aparcamiento los días de partido por las situaciones de conflictividad con los peatones que se pueden producir, principalmente, en la evacuación del estadio. Movilidad ha detectado que devolver las motocicletas a ese aparcamiento “no es recomendable” porque la salida de los aficionados que abandonan el estadio a pie, camino de los autobuses y la estación del Topo, choca con las decenas de motoristas cuya única opción pasa por salir del parking en dirección a la rotonda de la Paloma de la Paz. En cambio, el Ayuntamiento sí ha decidido que ese espacio se destine los días de partido a trabajadores de la Real Sociedad. Esta decisión no deja de ser sorprendente cuando las obras la instalación de Anoeta contemplan un aparcamiento subterráneo que, a priori, debería dar cabida a los vehículos de sus trabajadores.

En cualquier caso, sorprende que en vez de ponerse todos los medios para canalizar una salida ordenada del campo de Anoeta en días de partidos, permitiendo a motoristas y viandantes una salida de forma regulada por agentes de movilidad y por itinerarios señalizados, la decisión sea clausurar un espacio muy necesario para el aparcamiento de motocicletas, sin ofrecer más alternativas que la de Illunbe, máxime teniendo en cuenta las limitaciones en todo tipo de aparcamientos que afectan al barrio de amara, especialmente cuando se celebran

Horrek arazo askoz handiagoak sortu ditu. Moto zaleek ez dute non aparkatu, eta aparkatutako autoen arteko hutsuneak bilatzen dituzte. Arrisku handiagoko egoerak sortzen dituzte, aparkatu nahi ez duten ibilgailuak motorrak eta motoristak ibiltzen diren bide beretik ibiltzen diren tokiak baitira. Gainera, askok espaloietan edo traba egiten ez duten lekuetan aparkatu behar izaten dute, baina partidaz partida isuna jartzen zaie.

Erabaki klase horiek, behin-behineko izatetik behin betiko izatera herritarrei batere abisatu gabe pasatzen direnak, eta are larriagoa dena, antzeko alternatibarik gabe ixtea dakarten erabakiek, kontrol mozio hau eginarazi diote PP taldeari

KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Atano III.a frontoiaren, Gasca kiroldegia eta Anoetako estadioaren artean eratzen duten triangeluan den lur gaineko aparkalekua motoak aparkatzeko moduan egokitu eta hartarako erabiltzeko.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Anoetako zelaietan partidak direnean handik ordenan ateratzeko modua antolatu eta erregulatzeko, mugikortasuneko agenteen bidez eta ibilbide batzuk markatuta.
3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hasteko izapide batzuk egiten beste aparkaleku batzuk eskaintzeko Amaran lur gainean eta lur azpian, nola txandaka aparkatzeko hala bizilagunek aparkatzeko, Amarako bizilagunen erreklamazioak konpontzen laguntzeko modua izateko.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an.

partidos de la Real Sociedad.

Esto ha generado problemas mucho mayores. Los motoristas no tienen donde aparcarse y buscan huecos entre los coches aparcados. Generan situaciones de mayor peligro ya que son zonas en las que los vehículos que no quieren estacionar, circulan por la misma vía por la que las motos y motoristas maniobran. Además, muchos se ven obligados a aparcarse en aceras o en zonas donde no molestan pero donde se les multa partido tras partido.

Este tipo de decisiones que pasan de lo provisional a lo definitivo, sin el previo aviso a la ciudadanía, y lo que es más grave, a la clausura sin alternativa similar, lleva al Grupo Popular a presentar la siguiente :

MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a acondicionar y destinar el aparcamiento en superficie que queda entre el triángulo que forman el frontón Atano III, el polideportivo Gasca y el estadio de Anoeta al estacionamiento de ciclomotores.
2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a canalizar una salida ordenada y regulada del campo de Anoeta en días de partidos por agentes de movilidad y por itinerarios señalizados.
3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a iniciar los trámites para ofrecer nuevos aparcamientos en rotación y para residentes, en superficie y subterráneos, en el barrio de Amara que contribuyan a solucionar las reclamaciones de los vecinos de Amara.

En San Sebastián, a 20 de febrero de 2020

Borja Corominas Fisas
PP udal taldearen bozeramailea”

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoa jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.^a Haizea Garay Gallastegui, D.^a Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego y D.^a Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6)
EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN
DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ-PNV, (6)
EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN
DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3)
ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (6)
EH BILDU, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3)
ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 20 – (9) EAJ-PNV, (6)
EH BILDU, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

6. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.

AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 3 – PP.

VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

II.1.7. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Anoeta estadio Txikiaren birmoldaketari buruz.

“Reyes Carrere Zabala EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Araudi Organikoaren 94. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du Anoetako miniestadioa birmoldatzeko proiektuan inguruan, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau otsailaren 17ko Gune Publikoen Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Anoetako miniestadioa birmoldatzeko proiektua oso bide luzea egiten ari da, luzeegia; tartean izan dira iragarpen publikoak, bete gabeko promesak eta huts egindako asmoak. Lehen iragarpena 2016. urtean egin zen, baina 2020an gaude eta oraindik ez dakigu noiz hasiko diren lanak. Gogoan izan behar da jarduera hori Anoetako estadioa berritzeko lanen barruan sartu zela; proiektu “izarra” futbol estadioa zen, eta

II.1.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el proyecto de remodelación del Miniestadio de Anoeta.

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene a bien presentar la siguiente moción de control para ser tratada en Pleno relativa al proyecto de remodelación del Miniestadio de Anoeta. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada el pasado 17 de febrero en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

El proyecto de remodelación del Miniestadio de Anoeta está siendo un camino muy largo, demasiado largo, de anuncios públicos, promesas incumplidas y expectativas fallidas. El primer anuncio fue en el año 2016, y estamos ya en 2020 y todavía no sabemos cuándo va a comenzar. Hay que recordar que esta actuación fue enmarcada en la reforma del estadio de Anoeta en la que el proyecto “estrella” era el estadio de fútbol y estaban incluidos otros dos

horren barruan beste bi proiektu “txikiago” zeuden sartuta: miniestadioa birmoldatzea eta modernizatzea, eta belar hockeyko zelai berri bat egitea. Iragarpen horiek ilusioa piztu zuten miniestadioko erabiltzaileen artean; izan ere, proiektu berriak aukera emango zuen nazioarteko lehiaketak egiteko, batez ere atletismokoak, futbol estadioko pista kenduta ez baitzegoen hartarako aukerarik.

Urte hauetan, EH Bildu udal taldeak, inplikaturako erakundeekin batera –klubak eta federazioak– askotan egin dizkio interpelazioak Gobernuari gai hori dela eta. Baina ez hori bakarrik: EH Bilduren mozio baten bidez, Udaltzakoak, 2017ko otsailean, hertsatuki eskatu zion Gobernuari lehenbailehen aurkez zezala miniestadioa birmoldatzeko proiektua eta egin zezala esparru osorako plangintza-kronograma bat. Erabaki hori bete ez zenez, 2018ko azaroan, udal talde honek beste mozio bat aurkeztu zuen, eta hori ere aho batez onetsi zen:

“Donostiako Udaltzakoak Udal Gobernuari eskatzen dio udal taldeei, bi hilabeteko epean, aurkez diezaiela Anoetako estadio txikia birmoldatzeko proiektua, eta eremu osorako plangintza-kronograma bat landu dezala”.

Ikusirik gobernu hau behin eta berriz isiltzen zela eta erakunde eta erabiltzaileak kezkatuta daudela, 2019ko uztailean, zinegotzi honek Gobernuari galdetu zion ea zer dela-eta izan den halako atzerapena eta zergatik ez den informaziorik ematen gai horri buruz. Zinegotzi ordezkariaren erantzuna izan zen ari zirela gai horrekin, ari zirela egiten gestioak eta bilerak atletismoko

proyectos “menores”: la remodelación y modernización del Miniestadio, además de la construcción de un nuevo campo de hockey hierba. Estos anuncios generaron ilusión entre los usuarios y usuarias del Miniestadio, ya que el nuevo proyecto daba la oportunidad de albergar competiciones de nivel internacional; de atletismo, principalmente, ya que la supresión de las pista del estadio de fútbol anulaba dicha posibilidad.

A los largo de estos años han sido numerosas las ocasiones que desde el grupo municipal EH Bildu, junto con las entidades deportivas implicadas- clubes y federaciones-, hemos interpelado al gobierno sobre esta cuestión. Pero no solo eso: a instancias de una moción presentada por EH Bildu, el Pleno instó al gobierno en febrero del 2017 a “que presente cuanto antes, el proyecto de ejecución de la remodelación del miniestadio, así como que elabore una planificación-cronograma para todo el ámbito”. Tras el incumplimiento de este acuerdo, en noviembre de 2018, este grupo municipal presentó de nuevo otra moción igualmente aprobada por unanimidad:

“El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que, en un plazo de dos meses, presente a los grupos municipales el proyecto de remodelación del miniestadio de Anoeta, así como que elabore una planificación-cronograma para todo el ámbito”.

Ante el silencio repetido de este gobierno y la inquietud de las entidades y usuarios e usuarias, el pasado mes de julio de 2019, esta concejala preguntó al gobierno acerca del retraso acumulado y de la falta de información en relación a esta cuestión. La respuesta del concejal delegado fue que ya estaban con el tema y que estaban realizando las gestiones y reuniones pertinentes con las federaciones

federazioekin, eta urtarrilean zehaztuta egongo zela proiektua.

Eta 2020. urtea iritsi eta, zinegotzi ordezkaria milagarren aldiz interpelatuta, joan den otsailaren 17ko batzordean, honako hau jakinarazi zigun: 2020ko urtarrilean, proiektua ontzat ematen duen txosten bat jaso dugu, eta Anoeta Kiroldegiak laster onartuko du proiektu berria". Hala ere, nahiz eta proiektu hori orain dela ia lau urtetik datorren, ez zuen datarik jarri horretarako.

Horiek hala, hau da nire KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eman dezala eman beharreko bultzada Anoetako miniestadioa birmoldatzeko proiektua aurkezteko, Anoeta Kiroldegiak lau hilabeteko epean onets dezan.

Donostia, 2020ko otsailaren 20a

Reyes Carrere Zabala
